



AUDITORIA MOTAK



MOTAK:

Barne Auditoria: Lantegiaren barrua aztertuz, hau nola dihoan jakiteko eta finkatutako helburuak betetzen diren jakiteko. Arriskuak aztertu.

+ Kudeaketa kontrola eta antolaketaz aztertzen laguntzeko.

Kudeaketa auditoria

Ingurugiroko Auditoria: Aldi berean helburuak lortu eta ingurugiroa babesteko.

Sistema Informatikoaren auditoria: Sistema teknikoak osotasunean aztertzea, eta hauen iharduera.

LEGEZKOTASUN auditoria: Erakunde baten operazio eta iharduerak araudiarekin bat datozen jakiteko. Akatsak, urrapenak aurkituz gero konpontzeko.

Betetze auditoria: Agiri bat da, helburua, dena ondo dagoela adierazten duena. Zergaitik? Hirugarren baten aurrean aurkeztu behar dutelako, adb. Administrazioan.

Kudeaketa auditoria: adibidez; erakunde baten egindako iharduera aztertzen da, bere helburuak lortzeko eta eskura duten baliabideen erabilera eraginkorra den jakiteko, ekonomia bultzatuz.

DUE DILIGENCE: Erosi, inbertitu egiten nahi denean egiten da, era askotakoak izan daitezke → lanbide desberdinetako auditoreak.
Entitate baten operazio eta finantza iharduerak aztertzen dira, batez ere erosi edo partizipazio bat nahi denean. KONTUAK AZTERTZEKO.

VENDOR: lantegia saltzeko gehien erabiltzen den prozesua da. erosi nahi dutenen artean dirua jarri eta auditatu egiten dute osotasunean. Txosten bakarra izanik denentzat. Gero eskaintza lotesleak egin eta saltzaileak bat aukeratzen du.

Langileen erantzukizun soziala + ...

AUDITORIA SOZIO LABORALA + CEAL

Auditoria motak → Betetze Auditoria → Due diligence – Vendor....

AUDITORIA SOZIO LABORALA:

- Auditoria mota hau profesional batek egin behar du (gaur egun oraindik ez da beharrezkoa inolako titulurik).
- Frogak aztertzen dira eta gero ondorioak ateratzen dira.
- Txosten batekin behar da egoera eta lan arloko araudiak bat datozen edo ez esateko. Laburbilduz, egoeraren RADIOGRAFIA bat egiten da.

Auditoria sozionalak 3 arlo nagusi ditu:

- Legezketasun*
- Giza baliabideena. Gaur egun egoera hau hobetzen, langileen egoera kontuan hartuz.
- Lan arriskuena (prebentzioa) → Lege araututa dago.
→ Nahitaezkoa den barraka.

LEGEZKOTASUN AUDITORIA: Araudia eta egoera bat datozen aztertzeko egiten da. Auditoreak bakarrik erantzungo du berak egindakoagatik eta ez besteek egin dutenagaitik. Baina zeozer arraroa ikuste badu (bere txostenean eraginik ez duena, bestela jaso egin beharko du) dagokionari esango dio konpontzeko (ezin dio erantzukizunik eskatu). Auditorearen txostena baikorra izan arren ez etorkizunean hala izango dela bermatzen ezta ere zuzendarien kudeaketa gaitzetzeko modu bat. Auditoria data bat jarriko du eta data horretarako berrituko??? du. Norentzat egiten dira alako auditoriak? Administratzaileentzat (enpresa nola lagatzen den jakiteko), jabeak/akziodunak, epaiketetan (konkurso de acreedores, herentziak), langileak....hauek guztiak zein den egoera jakiteko.

GIZA BALIABIDEEN AUDITORIA: Gero eta garrantzi gehiago lehiakortasunari begira.

LAN ARRISKUEN PREBENTZIO RAKO AUDITORIA: 31/95 L 30.6 art → enpresariak ez duenean prebentzio lanak egiteko kanpoko enpresa bat kontratatzen. Auditoria mota hau, nahitaezkoa da, eta agiriekin bat joan behar da. Halako auditorioetan bisitak derrigorrezkoak dira.

CEAL → Auditore sozionalaren elkarte Espainiarra da; 1993 sortua.

Auditari gehienak kideak dira, baina hau ez da derrigorrezkoa. Kideak beharrezkoa den kurtso bat egin behar dute.

1968 ospatutako G.G batzorde batean aurkeztu zen 1. Ponentzia gai honetaz eta ordutik aurrera eten gabe aldarrikatu dute. 2011 izen aldaketa egin zuten, lehen Zentro Europarra deitzen zen eta hortik aurrera Elkarte Espainiarra. Nazio eremua dauka eta hau Madrilen dago. Kideak honako hauek dira; abokatuak, ekonomistak, gizarte graduatuak.....

ARAU TEKNIKO OROKORRAK

CEALEK eginikoak dira normalean, baina, ez badago bat erez ez ohiturak jarraitzen dira.

3 motakoak dira normalean:

- Auditoreari buruzkoak
- Auditorearen exekuzio/gauzatzeari buruzkoak
- Auditoriaren txostenei buruzkoak.

AUDITOREI BURUZKOAK:

- Heziketa tekniko berezia behar du. Nahiz eta gaur egun ez izan beharrezkoa, baina zeozer behar da.
- Etengabe gaurkotuta (araudia gaurkotuta baita jurisprudentzia ere).
- Independentzia osotasuna eta objektibitatea gorde behar ditu bere ihardueretan, besteen interesak babestuz. Ezin bada abstenitu beharko da.
- Bere lana kalitatezkoa izan behar da → CEALEK kontrolatuko du (ez da guztiz egia)
- Berak egindakoarekiko erantzukizuna.
- Lanbide isiltasuna → ezin du Informaziorik zabaldu
- Horarioak egiteko erreferentziazko tarifak daude. * tarifa pertsonalizatuak, orduko. ** VENDOR eta DUO DILIGENCE garestienetarikoa dira akatask bilatzen dituztelako.

AUDITORIA ANTOLAKETA

Azterketa prozesu bat behar dute.

Ereduak → CEALEK emandakoak/ ohiturak / beste batzuk: kontu auditorietan erabiltzen direnak.


Antolaketan kontuak hartu beharrekoak:

- Programazioa
- Exekuzioa
- Programa martxan jartzeko beharrezkoak diren baliabideak.

Zertarako da antolaketa? Auditoria ordenatua eta zorrotza izateko. Dena era oso ordenatuan antolatuta egon behar da, irakurtzen duena arazorik gabe ulertzeko.

Zer behar du Auditoreak? Auditatuko duen erakundeak, behar dituen dokumentu guztiak ematea, bestela Txostenean “eskurako/hurbileko muga” bezala jarri behar du. Gertatzen den guztia apuntatu: norbaitek ez badigu kontratua ematen erantzukizuna txikiagoa izango da.

Antolaketa → Mandatu edo kontratuaren arabera izan behar da.



- Urratsak A) Aurretiazko ebaluaketa B) Mandatua gauzatu C) Plan osoaren egitura egin + egin beharrekoak programatu
D) Martxan jarri E) Txostena egin

